



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko abenduaren 7a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, berdintasunerako eta indarkeria matxisten prebentziorako politika publikoei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira deusezta dezaten Konstituzioaren 135. artikulua erreforma eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten. Eduardo Santos Itoiz jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Ministerioa premiatzen da Irakasle Kidegoetako sarbidea arautzen duen 276/2007 Errege Dekretua alda dezan. María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa sustatzeko politika aktiboak balia ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana banatzea bultzatzeko bideak azter ditzan. Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen baita erretira dezan Hezkuntzako Mahai Sektorialean aurkezturiko Lan-Eskaintza Publikorako deialdi proposamena. Mozioa erretiratzea (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu terrorismoaren, islamofobiaren eta gerren aurka dagoela, eta bat egiten baitu “Gure izenean ez” manifestuarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Estatuaren aurkako liskarrerako fronte bateratu bat bultzatzeko ezein ente, organo edo batzorde eratzearen aurka dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak irmoki salatzen baitu langile bat hil izana Urdazubin, lan-istripu batean. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, Hiesaren Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, Hiesaren Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baititu Valentziako Generalitateko lehendakariaren eta Balearretako Gobernuko lehendakariaren adierazpenak, Nafarroako autogobernuaren aurkako erasotzat jotzen dituelako. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Martzillako Lavandería Industrial Indusal, S.A. enpresaren instalazioetako suteari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren asmoei buruzkoa, Iruñeko Andrés Muñoz Garde HBIPk ikastetxe berri bat eraikitzeko eginiko proposamena dela-eta. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko etxez etxeko hezkuntza laguntzarako irakasleei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak zein epe dituen esku artean autismoaren diagnosi eta eskuhartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat ezartzeko eta autismoarako terapiak finantzatzeko. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (16. or.).
- Galdera, larrialdien koordinazioari eta babes zibilean eta larrialdietan zerbitzu ematen duten boluntarioekiko planei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (17. or.).
- Galdera, homofobia edo transfobia egoeren aurkako prebentzio-neurri, protokolo edo jarduketa-programei buruzkoa. Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Jauregiaren eremuko eraikinen mantentze-lanei, zaharberritzeari eta egokitzeari buruzkoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Plazaolako bide berdean izandako luiziari buruzkoa. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lantaldea, aztertzeko, besteak beste, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 24.5 artikulua aldatzeko proposamena, Mahaiko osaera paritarioa bermatzeko aukerak eta kontrolerako osoko bilkuren arautzea. Erregelamendu Batzordeak onetsia (19. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, berdintasunerako eta indarkeria matxisten prebentziorako politika publikoei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko jabeldura, berdintasunerako eta indarkeria matxisten prebentziorako politika publikoei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Saez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuari honako jabeldura hau aurkezten dio, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna dugu aukera bakarra berdinen arteko bizikidetasuneko gizarte bat eratzeko eta diskriminazio eta indarkeria sexista desagerrarazteko. Politika publikoak aldatu nahi baditugu gizonen eta emakumeen arteko eskubide eta aukera berdintasunaren defentsa garbian oinarrituta, emakume guztiei baldintza sozial eta ekonomiko duinak bermatuz, behar diren baliabideak eta langile egokiak esleitu behar dira.

Emakumeen ahalduntzeari lagunduko dion eta haiek esparru publikoan eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzea sustatuko duen gizartearen egitura-aldaketak berarekin dakar foru legeria berriz diseinatzea berdintasunaren arloan, benetan eragin dezan emakumeen egoeran, egiazko bihur dezan gizonen eta emakumeen zaintza arlo-

ko erantzunkidetasuna, errotik ken ditzan soldata arraila eta laneko bazterkeriak eta lagun dezan gizarte bat sortzen, berdinen arteko bizikidetasunean oinarritua, giza eskubideak bermatzen dituen eta indarkeria sexistarik gabekoa.

Ildo horretatik, estrategia bat bultzatu behar da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna Administrazioaren prozeduretan eta egituretan -txertatuko duena.

Horretarako ez da aski Nafarroako Berdintasunerako Institutua berreskuratzea, guztiz garrantzitsua bada ere. Badaude beste gai batzuk:

– Bermatzea zeharkako izaeraz jardunen duela, berdintasun politikak politika publiko guztien osagaia izan daitezen.

– Genero-eraginaren txostenak egitea Nafarroako Gobernuaren proiektuetan eta Nafarroan garrantzia berezia duten arau eta planetan, haiek prestatuko dituzten teknikariei prestakuntza egokia emanez.

– Genero-berdintasunari buruzko foru lege bat prestatzea.

– Neurri eraginkorrak aplikatzea enpresa publiko eta pribatu guztiei exijitzeko berdintasun-planak bete ditzaten, horietan bilduz alde aurreko diagnostiko bat eta geroko ebaluazio bat (2007ko Legea).

– Neurriak garatzea lan-merkatuko desberdintasuna eta gizonen eta emakumeen arteko soldata-arraila murrizteko. Kontratuatan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan gizarte- eta genero-klausulak sar daitezen bultzatzea.

– Ziurtatzea enpresa publikoetan eta gidaritzan postuetan edo goi karguetan betetzen direla legez ezarritako gizonen eta emakumeen arteko berdintasun irizpideak.

– Bermatzea behar diren baliabide teknikoak eta langileak badaudela proposatutako berdintasun planak bultzatzeko. Horretarako dagokion garrantzia emanen zaio berdintasuneko teknika-rien sareari. Berdintasunaren aldeko Udalerrien Sarea sortzea, NUKFko esparruan.

– Eskola programetan sartzea hezkidetzara, balioen hezkuntza eta hezkuntza afektibo-sexuala, afektibitate eta sexu arloan bizitza osasungarri eta arduratsua sustatzeko, eta jokabide matxista eta baztertzailak ekiditeko.

– Zaintzaren itun instituzional bat egitea, bertan jasotzeko Nafarroako Gobernu departamentu guztien konpromisoa pertsonen zaintza eta beharrak kokatzeko haien politika, plan, programa eta jarduketa guztien erdigunean.

– Nafarroako Gobernuaren berdintasunerako barne plan bat prestatzea, negoziazio kolektiboari lotua, familia-eredu berriak aitortu eta aurreko ahaideak zaintzeagatiko eskubideak zabalduko dituen. Legedia betetzea.

Horregatik guztiagatik, parlamentari honek jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, berdintasunerako eta indarkeria matxisten prebentziorako politikei buruzkoa, ezagutze aldera zer jarrera duen aurretik aipatu puntuak, programa-akordioan daudenak, abiarazteko, eta premiatzen dugu du horri buruz informa dezan, bai eta ildo horretan jada egin diren edo egin nahi diren urratsi eta azterlanei buruz ere.

Iruñean, 2015eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira deusezta dezaten Konstituzioaren 135. artikuluen erreforma eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.

EDUARDO SANTOS ITOIZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eduardo Santos Itoiz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua, Diputatuen Kongresua eta Senatu premiatzen baitira deusezta dezaten Konstituzioaren 135. artikuluen erreforma eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Eduardo Santos Itoiz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Konstituzioaren 135. artikuluen aldaketak –PSOE eta PPK sustatua– ezartzen du zorrarekiko betebeharrak –interesek eta kapitalak– erabateko lehentasuna dutela, beste edozein gastu publikoren gainetik, eta horrek esan nahi du zerbitzu publikoak eta horien bidez bermatu nahi diren eskubideak inbertsiogileen interesak asetzearen mende gelditzen direla.

la oharkabean pasatu bada ere, erreforma horretan, Konstituzioko manu izatera igaro da toki entitateen aurrekontu-oreka, eta, horrenbestez, larriki murriztu da toki administrazioen kudeaketa.

Aldatutako Konstituzioko artikulua hori garrantzian, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2002 Lege Organikoak zenbait neurri ezarri ditu –aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna eta gastu erregela, nagusiki– gizarte-prestazioetako gastu publikoa murriztera eta inbertsio publikoak eragoztera bideratuak.

Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeak helburu du toki administrazioak bihurtzea zerbitzu publikoak enpresa pribatuekin azpikontratatzeko dituzten

agentziak, lege-euskarria emanez pribatizazioei eta ustelkeriari. 27/2013 Lege horrek ezeztatu edo nabarmen murrizten ditu udalek hainbat arlo sentiberatan dauzkaten eskumenak; esate baterako, gizarte zerbitzuen prestazioa, sustapena eta gizarteratzea, hezkuntza, kultura, emakumearen sustapena, etxebizitza, osasungintza eta ingurumenaren babesa.

Konstituzioaren 135. artikulua hori garatzen duten arauak auzitan jarhiz dute udalen eta kontzejuen bideragarritasuna, eta horiek dira, hain zuzen ere, herritarrengandik gertuen dauden administrazioak. Halaber, beste urrats bat gehiago egitea da, Nafarroak toki administrazioen esparruan dauzkan jatorrizko eskumenak zapaltzeko bidean.

Erabaki proposamena:

1. Espainiako Gobernuari, Diputatuen Kongresuari eta Senatuari eskatzen diegu

- Konstituzioaren 135. artikulua aldaketa indargabetu dezaten.

2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.

2. Arau horiek bilatzen duten helburua lor dadin ekiditeko jarduketak susta ditzaten; alegia, toki administrazioak erabiltzea murrizketa-politikak inposatzeko eta, finean, horiek desagerrarazteko.

3. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari helaraztea, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Eduardo Santos Itoiz

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Ministerioa premiatzen da Irakasle Kidegoetako sarbidea arautzen duen 276/2007 Errege Dekretua alda dezan.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Ministerioa premiatzen baita Irakasle Kidegoetako sarbidea arautzen duen 276/2007 Errege Dekretua alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko parlamentari María Roncesvalles Solana Aranak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Aurtengo azaroaren 20an, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean egindako agerraldian, Hezkuntzako kontseilariak hainbat informazio aurkeztu zituen, Foru Komunitateak atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duen enplegu publikorako deialdia egiteko dituen zailtasunei buruzkoak.

Hezkuntza kontseilariak azaldu zuenez, beste autonomia erkidego batzuetako programa eleaniztunekin alderatuta, Nafarroan Ingeleseko Ikasteko Programak bi ezaugarri ditu, gainerakotik bereizten dutena:

- Gaztelaniazko ereduetan programa Haur Hezkuntzaren hasieratik aplikatzen da, eta Lehen Hezkuntzako baldintza beretan. Beraz, berriro ematen dira ezagutza-eremuak Haur Hezkuntzan eta curriculum-edukiak Lehen Hezkuntzan, guxtienez ere 10 orduz astean.

- Programan ingelesez irakasteko hizkuntza horretako C1 maila behar da eta, kasua denean eta era iragankor eta subsidiarioan, B2 maila.

Azken kasu horren salbuespen bakarra Madrilgo Erkidegoa da, maila bereko kreditazioa eskatzen baita.

Datu horietatik ondorioztatzen ahal dugu autonomia erkidegoek aukera dutela ingeleseko espezialitateko oposizioak egiteko, programa eleaniztutuetan dituzten beharrei erantzuteko, erkidego askotan ez delako ezartzen Haur Hezkuntza, eta ezartzen den tokietan azkenean atzerriko hizkuntzaren ordutegiaren luzapena izaten da. Horri gehitu behar diogu ingeleseko espezialitate iristen diren langileak Haur Hezkuntza gaitzen ahal direla, ia automatikoki.

Edonola ere, Geroa Bairen ustez haratago joan beharra dago, eta legezko aukera guztiak hartu behar ditugu kontuan atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten irakasleendako oposizio deialdiak egiteko, hain zuzen ere ingelesekoak.

Atzerriko hizkuntzaren profila duten irakasleen oposizio deialdiak egiteko Nafarroak hasieratik proposatu duena zera da, Ministerioak alda dezala Irakasle Kidegoetako Sarbidea arautzen duen 276/2007 Errege Dekretua, horrela ahalbidetzeko autonomia erkidegoek beraien deialdietan exijitzea atzerriko hizkuntza baten kreditazioa, horrelaxe aurreikusten baita aipatu dekretuan autonomia erkidegoetako hizkuntza koofizialetarako (12. eta 16. artikulua).

Ministerioak ez badu aldaketa hori onartzen, gure ustez foru lege bat proposatzeko aukera legoke, atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten irakasleen oposizio deialdia ahalbidetuko lukeena, aldeztatik akordio espresua eginda ministerioarekin irakasleak estatuko kidegoetan sartzeko. Foru lege hori onetsiko balitz aldeztatik lortu gabe ministerioaren konpromisoa, irakasleak estatuko kidegoetan sartzeara, gerta liteke irakasle multzo bat egotea (bakarrik ingelesaren eskakizuna

duten lanpostuetan sartzeko direnak) Nafarroako funtzionarioek osatua, baina irakasleen kidegoetan egon gabe, eta hori kalte nabarmena litzateke, bai nazioko mugikortasunaren aldetik bai irakasleen kidegoen artean ere, osasuneko prestazioetan edo aldeztatik aurreko borondatezko erretiroa eskatzeko, esate baterako.

Horregatik guztiagatik, Geroa Baik honako erabaki proposamenak aurkeztu ditu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako parlamentuak Hezkuntza Ministerioa premiatzen du, Sarbideari buruzko 276/2007 Errege Dekretuaren 12. eta 16. artikulua aldatuz, bide egokia baita atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten irakasleen sarbidea ahalbidetzeko, aukera emanen lukeelako ondoko honetarako:

– Autonomia Erkidego guztiak deialdia egin ahal izatea hizkuntzaren eskakizunarekin, baina inongo erkidegorik horretara behartu gabe.

– Autonomia erkidego bakoitzean sartzeko diren irakasleak estatuko kidegoetan sartzeko eta gainerako irakasleen eskubide eta betebeharrak berak gordetzea.

2. Aldaketa hori egin ezean, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Ministerioa premiatzen du Nafarroako Gobernuarekin adostu dezan irakasleak Estatuko kidegoetan sartzeko, behin deialdia egin eta gero irakasleen sarbidea arautzen duen foru lege baten bidez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: M.^a Roncesvalles Solana Arana

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa sustatzeko politika aktiboak balia ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita irakurketa sustatzeko politika aktiboak balia ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Irakurketa gizarte-, hezkuntza- eta populazio-maila guztietan sustatzeak aukera berdintasuna bermatzen du eta gizarte-kohesioa laguntzen du,

edozein direla ere pertsonak edo haien ingurubarrak.

Liburutegi publikoen lehentasunezko lanetako bat da herritarrei eskaintzea ezinbesteko eta oinarritzko informazioa, hura guztien eskura jarriz, edozein delarik ere prestakuntza maila, gizarte egoera edo bizitokia.

Hiritarrei ezagutzaren gizartearen esparruan irakurketarako eta informaziorako sarbidea bermatzen jarraitzeko, beharrezkoa da Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarea egokitzea bizi garen mendean dugun eskaerak ezartzen digun errealitatera.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakurketa sustatzeko politika aktiboak egin ditzan. Horretarako, Liburutegi Publikoen Sarea bultzatu eta egokituko du, liburutegiak ikastetxeekin lanean eta lankidetzan arituz, erosketak berriak egiteko aurrekontua handituko du, guxtienez ere orain dela lau urteko mailaraino, eta bermatuko du liburutegi guztiek egoki funtzionatzeko behar duten adina langile kualifikatu izatea –32/2002 Foru Legearen 25. artikulua betetzeko–, irakurketa klubei laguntza emanen die eta formatuak eskaera digital berrietara eta teknologia berrietara egokituko ditu.

Iruñean, 2015eko azaroaren 26an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana banatzea bultzatzeko bideak azter ditzan.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lana banatzea bultzatzeko bideak azter ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ia 5 milioi pertsona langabe ditugu gure herrialdean. Nafarroan 41.900 langabe daude (aurtengo azken hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkesta).

LANE-Lanaren Nazioarteko Erakundeak 2015ko "Gizarte-ikuspegiak eta lanari buruzkoak munduan" txostenean, "Enplegua mutazio betean" azpitulua duen horretan, zera dio, lanaren munduan aldaketa sakona gertatzen ari dela, baina munduko ekonomia, bitartean, ez dela behar adina lanpostu sortzen ari. LANEren arabera 2014. urtean munduko langabezia 201 milioi pertsonetara iritsi zen, krisialdi globala 2008an era ofizialean hasi baino lehen zegoena baina 30 milioi gehiago. Aipatu erakundeak, halaber, adierazten du erronka itzela dela lana ematea lan-merkatuan urtero sartzen diren 40 milioi pertsona horiei.

Eta gainera, lanposturik ez izate orokor horri erronka berriak gehitzen zaizkio, enplegu-harremanetan gertatzen ari den aldaketa sakonetik datozenak. Lana ondasun urria da gaur egun, eta

oso gaizki banatua geografiaren arabera (kontinenteak, herrialdeak) zein generoaren eta belau-naldien arteko ikuspegiaren arabera. Beraz, eztabaida biziberritu egiten da lanaren banaketari buruz eta egoera jasanezin horrekin amaitzerakoan banaketa horrek izan behar duen zereginari buruz.

Beraz, enplegu- eta lan-politiketan gizarte eredu baten aldeko irakurketa eta apustu kulturala egiten da, eta lotu behar da gizarte justiziak eta ongizateak gure ideietan duten lekuarekin, Podemos-Ahal Dugu taldearentzat funtsezko lekua baita. Aldi berean, lotu behar da politika publiko integralak eratzearekin, aurrekontuen gaineko erabakiekin eta, jakina, errentaren banaketarekin. Azken finean, lanaren banaketa ardatz bat da pertsonen duintasuna eta gizakiaren beharrak asetzeko politika publikoen erdigunean kokatzeko.

Gure ustez horrek guztiak justifikatzen du Nafarroako Gobernuak bere arreta jartzea enplegu-politika aktiboak lehentasunez eta urgentziaz garatzean.

Programa-akordioan, lan-harremanen atalean, 44. orrialdean, konpromiso zehatza jasotzen da, honako helburu hauekin:

7.- Lana banatzea bultzatzeko bideak azterzea (barne-plangintza hobetzea, lanaldia doitzea edo murriztea, ordu estrak deuseztatzea, aurretiko erretiroa hartzea eta errelebo-kontratuak egitea).

8.- Azterlan bat egitea administrazioan lana banatzeko aukerei buruz, baita haiek gauzatzeko aukerei buruz, eta 39/2014 Foru Dekretua aldatzea, Funtzio Publikoaren Mahaiko sindikatuekin bat.

9.- Testuinguru horretan, Nafarroan lanaren banaketari buruzko biltzar bat antolatuko da, kreditatutako adituekin. Arrakastari eta gogoetari buruzko esperientziak zabalduko dira, behar den lege-esparrua sortzeko. Horretarako, Gizarteko Laneko Sailaren, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta interesa duten beste eragile batzuen lankidetzaren izan da.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

"1. Lana banatzea bultzatzeko bideak azter ditzan (barne-plangintza hobetzea, lanaldia doitzea

edo murriztea, aparteko orduak deuseztatzea, aurretiko erretiroa hartzea eta errelebo-kontratuak egitea), ateratzen diren ondorioak geroago Parlamentu honi aurkezteko.

2. Azterlan bat egin dezan administrazioan lana banatzeko aukerei buruz, baita haiek gauzatzeko aukerei buruz ere, eta 39/2014 Foru Dekretua aldatzea, Funtzio Publikoaren Mahaiko sindikatuekin bat.

3. Nafarroan lanaren banaketari buruzko biltzar bat antola dezan, kreditatutako adituekin, arrakastari buruzko esperientziak zabaltze aldera, behar den lege-esparrua sortzeko, Gizarteko Laneko Departamentuaren, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta interesa duten beste eragile batzuen lankidetzaz edukita.

Iruñean, 2015eko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen baita erretiratu dezan Hezkuntzako Mahai Sektorialean aurkezturiko Lan-Eskaintza Publikorako deialdi proposamena.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen zen erretiratu zezan Hezkuntzako Mahai Sektorialean aurkez-

turiko Lan-Eskaintza Publikorako deialdi proposamena, eta 2015eko azaroaren 20ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu terrorismoaren, islamofobiaren eta gerren aurka dagoela, eta bat egiten baitu “Gure izenean ez” manifestuarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du terrorismoaren, islamofobiaren eta gerren aurka dagoela.

Nafarroako Parlamentuak bat egiten du “Gure izenean ez” manifestuarekin. Kulturako, politikako eta beste arlo batzuetako pertsonalitateek bultzatzen dute ISISen terrorismoaren eta gerra guztien aurkako manifestu hori.

Nafarroako Parlamentuak aldeketasuna adierazten die gerren aurka deitutako elkarretaratzei eta haietan parte har dezaten dei egiten die nafar herritarrei!”

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Estatuaren aurkako liskarrerako fronte bateratu bat bultzatzeko ezein ente, organo edo batzorde eratzearen aurka dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du Estatuaren aurkako liskarrerako fronte bateratu bat bultzatzeko ezein ente, organo edo batzorde eratzearen edo Espainiarekin apurtzeko edo independizatzeko printzipioak errebindikatzearen aurka dagoela.”

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak irmoki salatzen baitu langile bat hil izana Urdazubin, lan-istripu batean.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak asko sentitzen du eta irmoki salatzen du José María Pérez García langilearen heriotza, eta bere laguntza eta elkartasuna eskaini nahi dizkie bere senitartekoei eta langideei.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da prebentzioan zeresana daukaten eragileen arteko lankidetzara, ekidite aldera langileek bizia galtzea lan-istripuen erruz, eta ezbeharra azkar eta sakon ikertzea eta erantzukizunak argitzea exijitzen du. Halaber, enpresei exijitzen die onar

dezaten beren ardura dela arau indardunak beteazte eta langile guztiei lan arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza eta informazio egokia ematea.

3. Nafarroako Parlamentuak lan istripu honek eragindako heriotza salatze elkarretaratzea egingen du gaur, erakunde honen egoitzaren atarian. Halaber, konpromisoa hartzen du hiru minutuko elkarretaratze bat egiteko hemendik aurrera, lan istripu baten ondorioz heriotza bat gertatzen den bakoitzean, eta gonbit egiten die parlamentariei bertan parte har dezaten”

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, Hiesaren Nazioarteko Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1 Nafarroako Parlamentuak aldeko jarrera erakusten du GIBari eta hiesari erantzuteko neurri inguruko itun politiko bat gauzatzeko, prebentzio, osasungintza eta gizarte arloetan, esparru egonkor eta orekatua ezarriko duena gai horretan esku hartzerakoan, eta Estatuko politikatzat hartuak izan daitezkeen, kontuan hartuta gaixotasun horren egoera Espainian, eta bereziki Nafarroan. Gutxienez honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

– Behar den aitortza, laguntza eta zuzkidura ekonomikoa Hiesaren Plan Nazionalako Idazkari-tzari, gizarte erakundeei eta autonomia erkidegoei, ONUSIDA 90x90x90 tratamenduaren helburua betetzeko. GIBarekin bizi diren pertsonen %90ek jakinen dute zein den haien egoera serologikoa, GIBaren infekzioaren diagnostikoa duten pertsonen %90ek tratamendu jarraitua hartuko dute, eta tratamendua hartzen dutenen %90ek 2020. urterako birusaren desagertzea lortuko dute, 2030. urtean hiesaren izurritearekin bukatzeko asmoz.

– Nafarroan hiesaren prebentziorako eta kontrolerako programa eguneratzea eta egiazki garrantzua.

– Ugalketa- eta sexu-osasunaren arloko dekretua betetzea esparru soziosanitarioan, eta hezkuntza afektibo-sexuala hezkuntzaren esparruan sartzea.

– Hiesari buruzko prestakuntza berezia irakasleentzat eta esparu soziosanitarioko profesionalentzat.

2. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Gobernuak berma eta indar ditzan hezkuntzaren, esku-hartze sozialaren eta osasungintzaren arloko egintzak, GIBa-hiesa desagerraraztera bideratuak, gaixotasun horren prebentziorako, detekziorako eta jarraipenerako egintza berezien bidez.

3. Nafarroako Parlamentuak aldeko jarrera erakusten du Nafarroako Gobernuak jasangarritasun ekonomikoa berma diezaien eraginkortasuna eta eragimena erakutsi duten elkarte eta zentro komunitarioei, erakunde publikoen jardunaren osagarri gisa hiesaren detekzio eta prebentziorako.

4. Nafarroako Parlamentuak aldeketasuna adierazten die adierazpen honen ildoan, eta Hiesaren nazioarteko eguna ospatzeko, egiten diren mobilizazio eta ekintzei”

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, Hiesaren Nazioarteko Eguna dela eta

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1 Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du kontsentsu politiko zabal bat lortzea GIBari, Hiesari, hepatitis birikoari eta beste STG batzuei buruzko politiketan, estatu politika gisa esku hartzeko esparru egonkor eta etengabe bat sustatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du estrategia nazional bat garatu dezan, bertan sartuta GIBari, hepatitis birikoei eta STGei eman beharreko erantzuna, eta kontuan hartuta hainbat lerro estrategiko, esate baterako, transmisioaren prebentzioa, diagnostiko goiztiarra, ukitutako pertsonen gizarteratzea eta lan munduan sartzea, estigmaren eta bazterkeriaren aurkako borroka, haien bizi-kalitatea hobetzea eta GKE eta GIBari erantzuten dioten beste egile batzuen kapital soziala indartzea, lehentasuna izanik infekzioaren aurrean ahulen dauden kolektiboen egoera.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Hiesari buruzko Plan Nazionaleko Idazkaritza berreskura dezan, bere gain hartu ahal izateko GIBarekin, hiesarekin eta beste STG batzuekin lotutako prebentzio, laguntza, nazioarteko lankidetzeta eta ikerketa politiken lidergoa eta koordinazioa. Horretarako, aurrekontu Orokorretan idazkaritza horren funtzionamendu eta jarduerarako baliabide ekonomikoak ezarriko ditu.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du ikerketa bultzatzea, arlo klinikoan, epide-

miologikoan, prebentziokoan eta psikosozialean. Bultzada hori ikuspegi batzuetatik abiatu behar da: baliabideak esleitzea, baliabideen erabilera onena galarazten duten kudeaketa defizitak hobetzea eta ekimen publiko-pribatuak berreskuratzea, Espainiako osasungintzan eta arlo sozialean ikerketarako gakoak direnean; esate baterako, FIPSE fundazioa.

5. Nafarroako Parlamentuak funtsezkotzat jotzen du bazterkeriaren, estigmaren eta aurreiritziaren aurkako borrokan aurrera egitea; horretarako, ezabatu egin behar dira gaixotasunaren ondorioz estigma, bazterkeria edo tratatu ezberdina sortzen duten jarrerak, arauak eta praktikak, lanaren, gizartearen, eskolaren eta ekonomiaren arloan.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du prebentzio kanpainak gara ditzan hezkuntzaren esparruan, eta hezkuntza afektibo-sexuala sar dezan ikastetxe guztietako derrigorrezko curriculumean.

7. Nafarroako Parlamentuak presakotzat eta beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Gobernuak ekintza berezien plan eguneratu bat presta dezan, GIBaren prebentziorako, detekzio goiztiarrerako eta tratamendurako.

8. Hiesaren Nazioarteko Egunean Nafarroako Parlamentuak gogora ekarri nahi ditu hiesaren ondorioz hil direnak, eta ukitutako pertsonetikiko duen konpromisoa berresten du”

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baititu Valentziako Generalitateko lehendakariaren eta Balearretako Gobernuko lehendakariaren adierazpenak, Nafarroako autogobernuaren aurkako erasotzat jotzen dituelako.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Valentziako Generalitateko lehendakariaren eta Balearretako Gobernuko lehendakariaren adierazpenak arbuiatzen ditu, Nafarroako autogobernuaren aurkako erasotzat jotzen dituelako.

Nafarroako Parlamentuak ordezkari instituzional horiei eskatzen die errespetua gorde diezaizketela Nafarroako herritarren eskubideei.

Nafarroako Parlamentuak adierazpen hau aipatu kargudun instituzionalei igorriko die:

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Martzillako Lavandería Industrial Indusal, S.A. enpresaren instalazioetako suteari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako galdera, Martzillako Lavandería Industrial Indusal, S.A. enpresaren instalazioetako suteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Iragan larunbat gauean –2015eko azaroaren 21ean–, sutea piztu zen Martzillako “Lavandería Industrial Indusal” enpresaren instalazioetan, non

110 langileko plantilla baitauka enpresa horrek. Jakin dugunez, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Ayerdi Olaizola jauna biharamunean azaldu zen zoritzarreko gertakariak izandako tokian, egoeraz galdetzera, eta harremanetan jarri zen enpresako zuzendaritzako arduradunekin, langileen legezko ordezkariekin, herriko agintariekin, kasuko ikerketa egiteko eskumena daukaten segurtasun kidegoekin eta erakunde publiko nahiz pribatuekin.

Nafarroako Gobernuak zer informazio bildu du Martzillako “Lavandería Industrial Indusal” enpresaren instalazioetan gertatutako suteari – eta horrekin batera izandako beste gertakari batzuei buruz eta, zehazki, gertakari horiek eta horien zergatia direla-eta orain arte egindako ikerketei buruz, enpresan segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan lehendik zegoen egoerari buruz –eta kontuan hartu beharreko aurretiazko beste inguruabar batzuei buruz– eta, azkenik, gertatutakoak produkzioaren jarraitutasunean izanen dituen ondorioei buruz eta enpresa horretako langileen egoerari buruz?

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamorro

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren asmoei buruzkoa, Iruñeko Andrés Muñoz Garde HBIPk ikastetxe berri bat eraikitzeko eginiko proposamena dela-eta.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren asmoei buruzkoa, Iruñeko Andrés Muñoz Garde HBIPk ikastetxe berri bat eraikitzeko eginiko proposamena dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak zer asmo dauka Iruñeko Andrés Muñoz Garde HBIPk ikastetxe berri bat ia kosturik gabe eraikitzeko eginiko proposamena dela-eta?

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko etxez etxeko hezkuntza laguntzarako irakasleei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko etxez etxeko hezkuntza laguntzarako irakasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak arautzen du Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun.

Foru agindu horretan jasotzen da Etxez etxeko laguntza programa, medikuak hala aginduta etxean luzaroan egon behar duten ikasleei zuzendua. Horren xedea da etxez etxeko hezkuntza-arreta antolatzea, eriondoan dauden ikasleei behin-behinekoz sortzen zaizkien desberdintasunak desager daitezen. Hezkuntza-laguntza horrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipena bermatu behar du ikastetxearekiko koordinazioaren bitartez.

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau

Funts publikoekin ordaindutako Nafarroako ikastetxeetan eskolatutako ikasleei hezkuntza zerbitzu egokia emate aldera, Hezkuntza Departamentuak NHBBZ-Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren bidez kudeatzen du etxez

etxeko laguntza taldea, laguntza hori hezkuntza laguntzako berariazko beharrian gisa hartuta.

NHBBZren Etxez etxeko laguntza taldeak onuradunen esku jar dezake, hala nahi baldin badute, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen zerrenda, eriondoan dauden ikasleen etxez etxeko hezkuntza laguntzaren arloko beharri-zanak asetzeko kualifikatuta daudenak.

Laguntza jasotzen duten pertsonen dagokie irakasle horiek emandako zerbitzuak ordaintzea; izan ere, irakasle horiek ez dute edukiko Hezkuntza

Departamentuarekiko inolako lan edo kontratu bidezko harremanik.

Hezkuntza Departamentuak aurreikusita al du irakasle horiek, zeinek foru agindu batean jasotako jardura bat egiten baitute, gainontzeko irakasleen lan-eskubide berberak eduki ditzaten eta horiek kontratatzeko bidea Departamentua bera izan dadin, aldi baterako kontratazio-zerrenden bidez eta eskubide eta betebeharrak berberak edukita?

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak zein epe dituen esku artean autismoaren diagnosi eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat ezartzeko eta autismorako terapiak finantzatzeko.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak zein epe dituen esku artean autismoaren diagnosi eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat ezartzeko eta autismorako terapiak finantzatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Begoña Ganuza Bernaolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 20an, Osasun Batzordeak mozio bat onetsi zuen (9-15/MOC-00065), zenaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan eta autismorako terapiak finantza ditzan. Mozioaren lehendabiziko puntuan, autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat prestatzera premiatzen da.

– Osasun Departamentuak zer data darabil gogoan horretarako?

Bigarren puntuan, Autismoaren Nafarroako Elkartek autismoa artatzeko egiten dituen terapiak finantzatzera premiatzen da, Autismoaren Nafarroako Elkartarekin hitzarmen bat eginez, edo terapia horiek O-NOZek oso-osorik bere gain hartzera.

– Departamentuak zer data darabil gogoan hori egiteko? Zer diru-kopuru bideratuko da hori finantzatzeko?

Iruñean, 2015eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, larrialdien koordinazioari eta babes zibilean eta larrialdietan zerbitzu ematen duten boluntarioekiko planei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, larrialdien koordinazioari eta babes zibilean eta larrialdietan zerbitzu ematen duten boluntarioekiko planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Begoña Ganuza Bernaolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Larrialdietako Agentzia desagertuta dagoen honetan, nola koordinatuko dira larrialdiak?

– Urtariletik aitzina, Osasun Departamentuak zer plan dauka nafarrei babes zibilaren eta larrialdien arloan zerbitzu ematen duten boluntarioak direla-eta (Gurutze Gorria, DYA, erreskate-txakurrak, eta abar)?

Iruñean, 2015eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, homofobia edo transfobia egoeren aurkako prebentzio-neurri, protokolo edo jarduketa-programei buruzkoa.

MIREN JULIA ARANOASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, homofobia edo transfobia egoeren aurkako prebentzio-neurri, protokolo edo jarduketa-programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

• Nafarroako Administrazio Publikoek –Nafarroako Gobernuaren barne– ba al dute inolako prebentzio-neurririk, protokolorik edo jarduketa-programarik homofobia edo transfobia egoerentarako? Hala baldin bada, horien kopia jaso nahi dugu.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Nafarroako Jauregiaren eremuko eraikinen mantentze-lanei, zaharberritzeari eta egokitzeari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Jauregiaren eremuko eraikinen mantentze-lanei, zaharberritzeari eta egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

María José Beaumont kontseilariak salatu egin du Nafarroako Jauregiaren mantentze-lanei dagokienez UPNren gobernuak izandako "utzikeria eta zabarkeria".

Kontseilariak adierazi duenez, Nafarroako Artxibo Nagusiak garai batean hartzen zuena da alderik hondatuena. Artxibo berria 2003an eraiki zenez, lokal horiek jada 12 urte daramatzate hondatzen. Badakigu, orobat, Nafarroako kontuek hain aparraldi handia bizi izan zutela 2003-2007, non 300 milioi euro gastatu ahal izan baitziren Iberdrolaren akzioetan. Hortaz, ondorioztatu egin behar dugu lokal horien mantentze-lanetan eta konponketetan erakutsitako utzikeria gertatu zela aurrekontuek halako lanetarako kontusail bat bideratzea ahalbidetzen zuten garaietan.

Egoera hori dela-eta, Gobernuak Nafarroako Jauregiaren esparruko eraikinetan mantentze-, eraberritze-eta egokitze-lanak egingen ditu; izan ere, 1,25 milioi euro esleitu ditu 2016rako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan, obra horiek egiteko.

Datu horiek ikusita, honako hau jakin nahi dut:

– Teknikariek egindako txostenean jaso al da norainokoa izan den azken hamabi urteotako hondatzea?

– Egin al daiteke balorazio bat, jakite aldera Administrazioak zenbat diru aurreztuko lukeen alokairutan, eremu horiek (2.000 m²) Nafarroako Gobernuaren lantoki gisa erabiliz gero?

Iruñean, 2015eko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Plazaolako bide berdean izandako luiziari buruzkoa.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Dabid Anaut Peña jaunak aurkezturiko Plazaolako bide berdean izandako luiziari buruzko galdera, 2015eko azaroaren

9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lantaldea, aztertzeko, besteak beste, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 24.5 artikulua aldatzeko proposamena, Mahaiko osaera paritariora bermatzeko aukerak eta kontrolerako osoko bilkuren arautzea.

ERREGELAMENDU BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin "lantalde bat sortzeko erabakia, aztertzeko, besteak beste, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 24.5 artikulua aldatzeko proposamena, Mahaiko osaera paritariora bermatzeko aukerak eta kontrolerako osoko bilkuren arautzea". Erabaki hori Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak onetsi zuen, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran. Hona testua:

"**1.** Erregelamendu Batzordean lantalde bat eratzea, aztertzeko, besteak beste, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 24.5 artikulua aldatzeko proposamena, Mahaiko osaera paritariora bermatzeko aukerak eta kontrolerako osoko bilkuren arautzea.

2. Epe bat ematea, 2015ko abenduaren 14ko 09:30ak bitartekoa, parlamentu-talde bakoitzak

aipatu lantalderako ordezkaria izenda dezan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko parlamentu-taldeko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordezkari jardunen dena.

3. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du lantaldea zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

4. Azterlana egiteko epea bukatuko da lantaldea eratu eta sei hilabetera.

5. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, aipatu lantaldearen osaerari eta eratzeari buruz behar dena xeda dezan".

Iruñean, 2015eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

